

GRADUKO TITULUEN PRACTICUM III. LEHEN ETA HAUR HEZKUNTZA

1. PRACTICUM III-REN ARAUDIA

1. Practicum III (18 kreditu) enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean egiten dena (publiko zein pribatua), 330 orduan: 10 astean banatuta, goizez eta arratsaldez.

2. Practicuma, hain zuzen, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin ahal izango da; sekula ez DBHn.

3. Goi-mailako Graduko Lanbide Prestakuntzako **Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari** tituludunek PRACTICUM 3ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute.

4. **Heziketa Fisikoko** ikasleek bere espezialitateko irakasle batekin burutu beharko dute praktikaldia. **Heziketa Fisikoko Practicum 3a egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da minorreko irakasgai guztiak matrikulatuta izatea.**

5. Gogoratu hiru practicumak gutxienez bi ikastetxe eta bi ziklo ezberdinetan egin beharko dituzuela, edozein izanda ere matrikulatuta zaudeten gradua. Practicum III egin ondoren Batzordeak egiaztatzen badu ikasleak ez duela bete baldintza hori, Practicum III-ko balorazioan EZ AURKEZTUA jarriko zaio.

6. Ezinbestekoa izango da 300 ordu egitea, irakasgaia egindakotzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean (10 aste) irakasle/tutoreak ez baditu finkatutako 300 orduak ematen, ikasleak beste irakasleren batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.

7. NAHITAEZKOA izango da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztagiria aurkeztu beharko zaizkie ikastetxeari eta Hezkuntza era Kirol Fakultateko tutoreari.

5 hutsegitetik gorako ez-agertze frogatuak gerora egin edo bete beharko dira. Garrantzitsua da kontuan izatea saio bakoitzera ez agertzea (goizez edo arratsaldez) hutsegite baten moduan zenbatuko dela. Ondorioz, egun osoan agertu ezean, bi hutsegite moduan zenbatuko da. Eta **frogatu gabeko bi hutsegiterekin, Praktikak automatikoki ezeztatuko dira.**

8. Praktiketari dabilen ikasle bakoitzak Hezkuntza era Kirol Fakultateko tutore bana izango du esleitura.

9. Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko prestakuntza egingo da. Era berean, Hezkuntza era Kirol Fakultateko tutoreak egutegian zehaztutako 2 orduko iraupeneko 4 mintegiak emango ditu. Formazio ikastarora EZ JOATEAK AMAIERAKO EMAITZAN 3 PUNTUKO jaitziera ekarriko du. (Ez bertaratze partzialeko kasuetan, tutoreak puntu jaitziera proportzionala egingo du). Bestalde, jarraipenerako mintegietara ez bertaratzeak AMAIERAKO EMAITZAN PUNTU 1eko jaitziera ekarriko du huts egite bakoitzeko.

10. Practicumaren amaieran, **ikasleak norbanakoaren memoria bat aurkeztu** beharko du; eta bertan, **praktiketan izandako esperientziaren berri** eman beharko du. Aipatutako lan horren edukiari buruzko informazioa ematea, berriz, Hezkuntza era Kirol Fakultateko tutorearen erantzukizunpeko lana izango da. **IDAZKARITZAN** aurkeztu beharko da memoria hori; hain justu, egutegian adierazitako **egunean (eta soil-soilik egun horretan)**. Memoria ez bada egun horretan jasotzen edo ez badauka idazkaritzako zigilurik eta frogagiririk, ikasleak **EZ AURKEZTUA** kalifikazioa jasoko du deialdi horretan.

11. Ezinbestekoa da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). **ZEINAHI ALDAKETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, IDATZIZ EGIN BEHARKO DA ESKAERA, ETA PRAKTIKA BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.**

12. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

2. PRACTICUM III. HELBURUAK ETA GAITASUNAK

Helburuak

III. Practicumak hauxe du helburu nagusi: ikasleek proiektu didaktikoak eta hezkuntza-programak (berrikuntzazkoak, lankidetzazkoak, esku-hartzekoak...) diseinatzeko, praktikan jartzeko eta ebaluatzeko gaitasunak garatzea, aurreko practicumetan egindako lana berrikusiz eta esperientzia zer-nolako ikastetxetan gauzatuko duten aurretik ezagutuz.

Gaitasunak

1. Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.
2. 0-6 eta 6-12 urteko ikasle-taldeen elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.
3. Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.
4. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.

3. EBALUAZIOA

- **Praktiken kalifikazioa, hain zuzen, honako hauen emaitza izango da:**
 - Irakasle/tutorearen balorazioa (notaren %30).
 - Hezkuntza era Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa, hauetan oinarrituta:
 - Praktiketako txostena (%40).
 - Ikasleak mintegietan eta aldeztu aurretiko prestakuntzan egindako jarduera (%30).

– **Ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea**

Praktikek (ikastetxea, egonaldia eta memoria) egindako ikasturterako soilik balio dute.

Praktiketan GUTXIEGI kalifikazioa jarriko da honako kasu hauetan:

- **“Gutxiegi” txostena, lehenengo deialdian:**
 - Gutxiegi nota jarriko zaio, eta beste txosten bat egin beharko du. Ikastetxeko nota baliagarria izango da praktika-denboraldia egin den ikasturteari dagozkion deialdietarako.
- **“Gutxiegi” txostena, bigarren deialdian:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere. Ikastetxearen nota ez da gordeko ikasturte batetik bestera.
- **“Gutxiegi”, ikastetxeko irakaskuntza-praktiketan:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere.
- **“Gutxiegi”, ikasleak mintegietan eta alde zurretiko prestakuntzan egindako jardueran:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere.
- **Frogatu gabeko bi hutsegite:**
 - Hurrengo ikasturtean, praktikak errepikatu beharko dira.

Praktiketako txostenak Idazkaritzan baino ezingo dira aurkeztu, eta hain justu, horretarako finkatutako egunean. Hala egin ezean, **EZ AURKEZTUA** kalifikazioa jarriko zaio ikasleari.

Oharra: Ikastetxeko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Txostena gainditu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, berrito egin beharko da ikastetxeko egonaldia.

4. PRACTICUM III BALIOZKOTZEA

1. IKASGAI OSOA baliozkotuko da baldin eta:
 - 1.a. Ikasleak Irakasle Ikasketen Diplomatura badu, matrikulatu den espezialitatean.
2. EGONALDIA baliozkotuko da soilik baldin eta:
 - 2.a. Egiaztatzen badu praktikaldian haur-hezkuntzako edo lehen hezkuntzako irakasle gisa diharduela –irakaskuntza publikoan edo pribatuan–, matrikulatu den espezialitatean eta jardunaldi osoan. Horrek

ez du inolaz ere esan nahi ikasgaiko beste eskakizunak bete behar ez dituenik (prestakuntza-ikastaroan egin beharreko lana, jarraipen-mintegiak eta amaierako txostena).